

GU GAZTEOK

12-14 URTEKO GAZTEEN HIZKUNTZA
EGUNEROKOTASUNERA
HURBILTZEKO IKERKETA PARTEHARTZAILEA

LABURPEN TXOSTENA ETA LAN-ILDOEN PROPOSAMENA AURRERA BEGIRA



Euskararen Aholku Batzordea
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



GU GAZTEOK

LABURPEN TXOSTENA ETA LAN-ILDOEN PROPOSAMENA AURRERA BEGIRA

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>>.

Argitaraldia: 1.a, 2016ko uztaila

Ale-kopurua: 1.500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala eta maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea: Lozano Impresores, S.L.

ISBN: 978-84-457-3408-7

Legezko Gordailua: VI-464-2016



AURKIBIDEA

Euskararen Aholku Batzordearen Osokoa	7
Euskararen Aholku Batzordearen Gazteriaren Batzorde-atal Berezia	9

HITZAURREA: ETA ZER DIOTE GAZTEEK?

PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO

Hizkuntza Politikarako sailburuordea	11
--------------------------------------	----

GU GAZTEOK

1. SARRERA	17
2. IKERKETARI BURUZ	19
3. GU, GAZTEOK	21
4. GU, GURE PRAKTIKAK	23
5. GU, GURE HIZKUNTZAK	27
6. ONDORIOAK	33
7. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK	39
8. ERREFERENTZIAK	43



EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN OSOKOA

ERAKUNDEETAKO ORDEZKARIAK:

Lehendakaria: Iñigo Urkullu
Renteria, Eusko Jaurlaritzako
Lehendakaria

Lehendakariordea: Cristina
Uriarte Toledo, Hezkuntza,
Hizkuntza Politika eta Kulturako
sailburua

Patxi Baztarrrika Galparsoro,
Hizkuntza Politikarako
sailburuordea

Joseba Erkizia Itoitz, HABEko
zuzendari nagusia

Arantza Aurrekoetxea Bilbao,
Hezkuntza sailburuordea

Maite Iruretagoiena Iburguren,
IVAPeko zuzendari nagusia

Ane Urkiola Alustiza, Ogasun
eta Finantza Saileko Zerbitzu
zuzendaria

Odile Kruzeta Olañeta, EITB
Irratiaren zuzendaria

Igone Martínez de Luna Unanue,
AFAko Euskara, Kultura eta Kirol
Saileko diputatua

Ana de Castro Rubalcaba, BFAko
Euskara Sustatzeko zuzendari
nagusia

Mikel Irizar Intxausti, GFAko
Hizkuntza Berdintasunerako
zuzendari nagusia

Mikel Pagola Tolosa, Euskal
Udalen Elkarteko ordezkaria

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua,
Euskaltzaindiko ordezkaria

EABren idazkaria: Jorge Giménez
Bech, Hizkuntza Ikerketa eta
Koordinaziorako zuzendaria



ADITUAK:

Kike Amonarriz Gorria	Pilar Kaltzada Gonzalez
Itsaso Andueza Fernandez	Elena Laka Muñoz
Iban Arantzabal Arrieta	Miren Elixabete Larrinaga
Joseba Arruti Lafuente	Artetxe
Lourdes Auzmendi Aierbe	Joseba Lozano Santos
Martin Auzmendi Aierbe	François Maitia
Miren Azkarate Villar	Koldo Martinez
Francisco Javier Azpiazu Lasuen	Urionabarrenetxea
Mikel Belasko Ortega	Iñaki Martinez de Luna Perez de Arribas
Maren Belastegi Guridi	Mertxe Mugika Balanzategi
Garbiñe Biurrun Mancisidor	Joxean Muñoz Otaegi
Allande Boutin	Eneko Oregi Goñi
Jasone Cenoz Iragi	Xabier Paya Ruiz
Maite Etxaniz Balentziaga	Carlos Ruiz Gonzalez
J. Iñaki Etxezarreta Alberdi	Pello Salaburu Etxeberria
Ramon Etxezarreta Aizpuru	Jon Sarasua Maritxalar
Aizpea Goenaga Mendiola	Pablo Suberbiola Unanue
Maite Goñi Eizmendi	Kirmen Uribe Urbieta
Jokin Gorozika Bidaurrezaga	Miriam Urkia Gonzalez
Itziar Idiazabal Gorrotxategi	Vanessa Vélez De Pablos
Jone Miren Hernandez Garcia	Xarles Videgain

EUSKO LEGEBILTZARRAREN PROPOSAMENEZ IZENDATUAK:

Lorea Bilbao Ibarra	Garbiñe Mendizabal Mendizabal
Paul Bilbao Sarria	Xabier Olabarrieta Arnaiz



EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN GAZTERIAREN BATZORDE-ATAL BEREZIA

Patxi Baztarrika Galparsoro,
Batzorde-atal Bereziko
presidentea

Jone Miren Hernandez Garcia,
Batzorde-atal Bereziko
zuzendaria

Aritz Abaroa Cantuariense

Jaime Altuna Ramirez

Kike Amonarriz Gorria

Itsaso Andueza Fernandez

Naiara Berasategi Sancho

Mikel Belasko Ortega

Lorea Bilbao Ibarra

Iñaki Eizmendi Arsuaga

Jokin Gorozika Bidaurreazaga

Itziar Idiazabal Gorrotxategi

Pilar Kaltzada Gonzalez

Elena Laka Muñoz

Miren Elixabete Larrinaga
Artetxe

Vanessa Velez de Pablos

Josune Zabala Alberdi

Jorge Giménez Bech,
Batzorde-atal Bereziko idazkaria

ETA ZER DIOTE GAZTEEK?

PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Euskara 21 Batzorde-atalean gauzatutako gogoeta eta eztabaida aberats baten ondoren, Euskararen Aholku Batzordearen Osokoak, aho batez, bere egin du «Eta hemendik aurrera zer?» dokumentua, hurrengo bi hamarraldietako hizkuntza politikaren oinarriak eta lehenetasun marko bat finkatzen dituena. Dokumentu horretan, besteak beste, eginkizun nagusi bat ezartzen da, lehenetasunetan lehenetasun: orain arte lortutakoari eustea.

Horrekin batera, lehenetsi beharko genukeen giza taldea ere zehazten da: gazteak.

Zergatik, baina, gazteak lehenetsi?

Hainbat dira hautu horretarako arrazoi nagusiak: batetik, gazteen artean kontzentratzen direlako euskaldunen proportziorik nabarmen altuenak; horrez gain, euskararen hazkundeak gazteen eskutik etortzen jarraituko duelako; eta euskaraz hazi, formatu eta hezitako belaunaldiak izango ditugulako nagusiki. Eta badira arrazoi gehiago: gazte euskaldun guztiak euskaraz alfabetatuak dira, adibidez, eta, nola ez, etorkizuneko gizartearen gidari eta liderrak gazteen artean daude, gure unibertsitate ikasketadun gazteen portzentajeak Europako altuenetakoak baitira.



«Eta hemendik aurrera zer?» dokumentuan irakur dezakegunez, «Ez badugu nahi gazteek euskara soilik hezkuntzarekin eta derrigortasunarekin lotzea, beharrezkoa genuke euskarari buruz duten/dugun ideia mudatzea. Euskarazko jarduna erakargarri izan behar zaigu, zerbait desberdina eskaini behar die euskarak gazteei, beste hizkuntzek ez duten xarma, komunikazio-tresna huts izatetik haratago, erabilgarritasunetik haruntzago».

Kezka eta helburu horiek genituen buruan, eta horrexegatik, legealdi honetan, 2014ko abenduan zehazki, Euskararen Aholku Batzordea berriro genuenean, Gazteriaren Batzorde-atal berezia sortzea erabaki genuen. Eta, Euskararen Aholku Batzordearen 2015/2016 urteetarako lan-programaren barruan, Gazteriaren Batzorde-atalari eginkizun nagusi bat jarri zitzaion: gazteek euskararen gainean eta hizkuntza aniztasunari buruz dituzten pertzepzio, identitate edo identifikazio, bizipen, jarrera eta jokamoldeei buruzko gogoeta eta azterketa egitea, gazteen beraien buru-bihotzetan. Azpimarratu behar dela uste dut, honakoa: ez genuen Euskararen Aholku Batzordea gazteen jarrera, jokabide eta iritziei buruz gogoetan jarri nahi; nahi genuena zen, gazteei entzutea horri guztiorri buruz zer dioten. Gazteei buruz gazteak aritzea, alegia, besteok aritu beharrean.

Batzorde-atala sortzearekin batera, Jone Miren Hernandez irakaslearen esku jarri genuen Batzorde-atalaren zuzendaritza.

Gazteriaren Batzorde-atalak 2015eko ekainean zehaztu zuen bere lana, eta, besteak beste, erabaki zuen «ikerketa bat egitea, gazteen parte hartzearekin, eta belaunaldi berrien artean hizkuntzari loturiko fenomenoak edo gertaerak aldiro-aldiro jaso ahal izateko metodologia bat zirriborratzen hastea».

Erabaki horren emaitza da «Gu gazteok» izeneko ikerketa parte-hartzailea, 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunerokotasunera



hurbiltzeko egina, hainbat helburu zehatz finkatuta: gazteen testuingurua ezagutzea; gazte izatearen irudia(k), bizipenak eta identitateak jasotzea; gazteen egunerokotasuneko praktiketara hurbiltzea; gazteen hizkuntza kartografia egitea (hizkuntza praktikak, hizkuntza guneak, hizkuntza eragileak...); hizkuntzaren inguruko gazteen diskurtsoak jasotzea.

Ikerketa horren ondorio nagusietan oinarri hartuta, ikerlariek hainbat lan lerro proposatu zituzten, aurrera begira.

Gazteriaren Batzorde-atalak, ikerketaren emaitzak ezagutu ondoren, ondorioak eta aurrera begirako proposamenak aztertu, eztabaidatu eta osatu zituen. Horrela sortuak dira sei ataletan biltzen diren aurrera begirako proposamenak, Gazteriaren Batzorde-atalak aho batez onartu zituenak 2016ko apirilaren 20an, eta Euskararen Aholku Batzordearen Osokoak maiatzaren 11n onartu zituenak, aho batez baita ere. Azken dokumentuan jasotzen dira guztiak.

Eta azken dokumentu hori da, beraz, argitalpen honek jasotzen duena: «Gu gazteok» ikerketa, ondorioak eta aurrera begirako proposamenak.

Nire ustez, merezi du azpimarratzea, gazteriaren arloan aurrera begira proposatzen diren lan-ildoak eta «Eta hemendik aurrera zer?» dokumentuaren lehentasun markoan finkatzen diren hainbat irizpideren artean dagoen lotura eta koherentzia.

Eskertu nahi diet beren lan bikaina bai ikerlariei, Jone Miren Hernandez buru dela, bai ikerketan parte hartu duten gazteei, bai eta gogoeta emankor honetan parte hartu duten Euskararen Aholku Batzordeko Gazteriaren Batzorde-ataleko kide guztiei ere.



GU GAZTEOK

12-14 URTEKO GAZTEEN HIZKUNTZA
EGUNEROKOTASUNERA
HURBILTZEKO IKERKETA PARTEHARTZAILEA





SARRERA

1

Komunikabideetan, kalean, gizartean, oro har, asko hitz egiten da gazteei buruz. Askotan daude gazteak beste batzuen ahotan. Baina, zein da gazteen errealitatea eta egunerokotasuna?; zein iritzi dute euren gizarteaz, euren testuinguruaz?; zer esaten dute euren buruei buruz?; nola definitzen dute euren burua gazte euskaldunek?; zer hizkuntzak erabiltzen dituzte, nola?; zer diote hizkuntzei buruz?

Jarraian aurkezten den dokumentu honetan galdera horien erantzun batzuk jaso dira zenbait gazteen ahotik. Laburpen txosten hau «Gazteak ikerlari, gazteekin egindako ikerketa partehartzailea» izeneko ikerketa lanaren emaitza da. 2015eko irail eta 2016ko otsail artean 12 eta 14 urte bitarteko ehun nerabeekin burutu zen euren egunerokotasuneko praktikak, identitateak eta bizipenak jasotzeko eta hizkuntzarekin harremanetan jartzeko. Nerabeen ahotsak entzun dira, beraiekin solasaldiak izan dira eta euren hizketaldien lekuko izateko aukera egon da. Lan hau, beraz, gazte hauen hizkuntza-esperientziaz blai dago, helburua gazteen eta hizkuntzaren arteko harreman hori gazteen errealitatean eta «izaeran» kokatzea izan baita.

Euskararen Aholku Batzordeko Gazteriaren Batzorde-atal Bereziaren eskariz egindako lan bat izan da, batzorde horretan, 2015eko ekainaren 17an, gazteak eta euskararen arteko lotura ikergunea izango zuen azterlana burutzea adostu baitzen.

Ikerketa horren emaitzak eztabaida eta hausnarketarako abiapuntu gisa planteatu dira, euskararen normalizazio sozialaren bidean. Horregatik, izaera praktikoa izan duen lana osatu da:



informazioa bildu eta eskaintzea izan da helburua. Alegia, gazteen egunerokotasunetik jasotako elementu esanguratsu batzuk mahai gainean jarri nahi izan ditugu, hortik abiatuta hausnarketa bideratzeko.

Dokumentuaren egiturari dagokionez, hasteko egindako ikerketaren ezaugarrien berri ematen da, eta, jarraian, emaitza esanguratsuenak laburbiltzen dira hiru kapituluetan banatuta. Batetik, «Gu, gazteok» atalean ikerketan parte hartu duten pertsonen gazte identitatea osatzen duten elementuak jasotzen dira. Bestetik, «Gu, gure praktikak» kapituluan gazteen egunerokotasuneko praktiketara hurbilketa bat egiten da, praktika hauetan hizkuntzaren presentzia nolako den aztertu ahal izateko. Azkenik, «Gu, gure hizkuntzak» atalean ikerketan parte hartu duten gazteen hizkuntza-praktika eta hizkuntzen inguruko diskurtso nagusienak deskribatzen dira. Dokumentua ikerketaren ondorio nagusienekin eta aurrera begirako proposamenekin amaitzen da.



IKERKETARI BURUZ

Ikerketa honen helburu nagusia gazteek beraiek euren inguruko hizkuntz ohiturak, jarrerak eta praktikak ezagutzea, aztertzea eta aurkeztea izan da. Horrekin batera, honako helburu zehatz hauek formulatu dira:

- ▶ Gazteen testuingurua ezagutzea.
- ▶ Gazte izatearen irudia(k), bizipenak eta identitateak jasotzea.
- ▶ Gazteen egunerokotasuneko praktiketara hurbiltzea.
- ▶ Gazteen hizkuntza kartografia egitea: hizkuntza-praktikak, hizkuntza-guneak, hizkuntza-eragileak...
- ▶ Hizkuntzaren inguruko gazteen diskurtsoak jasotzea.

Hizkuntzaren eta nerabeen egunerokotasunera hurbilketa etnografiko egin da Gizarte Antropologian oinarritutako ikerketa baten bidez. Horretarako, nagusiki, hiru teknika erabili dira:

- ▶ Behaketa partehartzailea.
- ▶ Talde dinamiken bidezko talde-hausnarketak.
- ▶ Elkarrizketa formalak eta informalak.

Ikerketa Gipuzkoako hiru herritako «Kuadrillategi»¹ egitasmoan gauzatu da: Lasarte-Orian, Pasaian eta Lezon. Guztira, 12 eta 14 urte arteko 105 gaztek parte hartu dute.

1. Lagunartean edo koadriletan euskararen erabilera sustatzeko helburuz garatzen den programa. Astean behin, ostiraletan bi orduz, 12 eta 16 urte bitarteko gazteek parte hartzen dute, 20 eta 50 arteko kidez osatutako taldetan, bina aisialdiko hezitzaileekin. 2015/2016 ikasturtean Kuadrillategi programa honako herri hauetan garatu da: Lezo, Pasaia, Oiartzun, Errenteria eta Lasarte-Oria, guztira 600 bat gaztek parte hartzen dute. Kuadrillategi egitasmoa 2001. urtean abiatu zen Pello Jauregi ikerlariaren eskutik.



GU, GAZTEOK

Azterketa lan honetan maila mikroko ikerketa garatu da gazteen egunerokotasunean oinarrituz. Maila mikro honetatik hizkuntza-egoeraren gizarte konplexutasuna ulertzeko bidea egin da eta horretarako gazte identitatea osatzen duten elementuak jasotzea abiapuntu interesgarria izan da.

Ikerketan parte hartu duten gazteek gaztetasuna ezaugarri positiboekin lotzen dute: politikak, modernoak, adiskideak, umoretsuak, irribarretsuak, kirolariak... Edertasuna gaztetasunaren ezaugarri nabarmen gisa agertzen da eta gorputzaren garrantzia agerikoa da: kirola, argazkiak, itxura fisikoa... Sexualitateari ere maiz egiten diote erreferentzia.

Jarduerak aipatzerakoan gazteen identitatea kirola eta festarekin oso lotuta agertzen da. Kirola modu generikoan aipatu da gazteen ezaugarri gisa. Festarekin lotutakoak ere nabarmentzen dira (martxa, festak, parranda, mozorroa, mozkorra...), nahiz eta adin honetako gazteen egunerokotasunean ez den oso nabarmenki praktikatzeko duten jarduerak.

Bestalde, gazteek pareen taldeari, adinkideei, garrantzi handia ematen diote. Taldeak gazteen identitatearen autopertzepzioan eragin handia du. Eskola eta etxea, aldiz, euren egunerokotasunean eta elkarrizketa informaletan presente badaude ere, gutxitan aipatzen dituzte gaztetasunaz hitz egiterakoan.

Pareen taldeak, beraz, garrantzitsuak dira gazte identitatean baina ikerketa honetan ez da talde edo «tribu» ezberdinik antzeman. Talde antagonisten aipamenak, soilik etorri berriak diren pertsonekin lotutakoak izan dira. Zenbait kasutan badirudi ikastetxea dela talde antagonistak eraikitzekeko elementu



erabakigarria, baina ez da herri guztietan hala gertatzen. Sexua, ordea, taldeak egiteko ezaugarri erabakigarria dela jaso ahal izan da. Zenbaitetan elkartzen badira ere, neskak neskekin eta mutilak mutilekin taldean ibiltzeko joera oso orokortua dago.

Hizkuntza nortasunari dagokionez, gazte hauentzat euskara bere identitatearen parte da eta honako hau nortasun ezaugarri positibotzat hartzen dute. Gazte batzuentzat harrotasunezko elementua da eta ezaugarri hau, batez ere, ikasten duten ikastetxearen bidez jasotzen den ezaugarria dela esan daiteke.

Azkenik, behatutako gazteek helduarotik baino haurtzarotik gertuago daudela sentitzen dutela jaso ahal izan da. Izaera kontuetan alaitasunarekin lotutako ezaugarriak hurrekin elkar banatzen dituzte, nahiz eta praktikan aldaketak sumatu: jolasa pixkanaka desagertzen doan jarduera da, telebista askoz gutxiago ikusten dute... Helduen izaera ezaugarriak deskribatzen dituztenean, ordea, alaitasuna desagertzen da honelako hitzak azalduz: kezka, arazoak, lana, ardura, seriotasuna, hausnarketa, kexak, haserreak, gaixotasuna...

GU, GURE PRAKTIKAK

4

Ikerketa honetan gazteek hizkuntzaren inguruan dituzten bizipenetara eta diskurtsoetara iristeko euren egunerokotasuneko praktiketarik abiatzeko hautua egin da. Horretarako, Hizkuntza Antropologian azken hamarkadetan erabiltzen den praktika-komunitatea kontzeptua garrantzitsua izan da². Kontzeptu hau norbanakoak bere bizitzan komunitate anitzetan parte hartzen duela onartzetik abiatzen da. Hizkuntza-komunitatean, ordea, hizkuntza arauak partekatzen dituen, homogeneoa den, komunitate bat irudikatzen da; taldea norbanakoaren gainetik dago (Hernandez, 2014).

Ikerketan parte hartu duten gazteen praktikak Jone M. Hernandezek proposatutako eskema honen arabera aztertu dira:



2. Janet Holmes eta Miriam Meyerhoff-en definizioaren arabera praktika-komunitatea da: «Un conglomerado de personas que se reúnen alrededor de un compromiso mutuo para llevar a cabo algo. Formas de hacer cosas, formas de hablar, creencias, valores, relaciones de poder —en una palabra: prácticas— surgen en el curso de ese esfuerzo mutuo» (Holmes & Meyerhoff, 1999).



Etxeari eta eskolari dagokionez, esan behar da zenbait dinamiketan bi espazio hauek islatuak agertu badira ere, behatutako gazteek etxea eta eskola gutxi aipatu dituztela. Oro har irakasleekin eta gurasoekin harremanetan agertzen diren aipamen asko gatazkaren bidez deskribatu dituzte: zigorrak, bihurrikeriak, irakasleen kritikak, haserreak, asperdura... Gune hauek eta hizkuntza lotzerakoan, eskola euskaraz egiteko/ikasteko/aritzeko espazio gisa identifikatzen dute. Etxea eta euskararen arteko lotura, aldiz, anitzagoa da.

Aisialdiko praktikak nabarmen ageri dira gazte hauen bizipenen kontakizunetan eta behatu ahal izan diren espazioetan. Hona hemen, aisialdiko gune eta uneekin lotutako ondorio nagusienak:

Gune monitorizatuak

Kirola garrantzi handiko esparrua da. Zalantzarik gabe, eskolaz kanpoko jardueren artean nabarmenena da, bai praktikan, bai gazteen zaletasunei dagokienez ere. Adin honetako gazte gehienek kirol praktikaren bat egiten dute eta futbola da presentzia handiena duen kirola. Kirol praktikan mutilen eta nesken artean joera ezberdinak daude. Nesken artean kirol praktika ohikoa da baina ez da hain orokorra eta aniztasun handiago dago. Mutilei dagokionez, ia guztiek futbola praktikatzten dute eta batzuk, horretaz gain, beste kirolen bat ere egiten dute. Mutilek garrantzi handia ematen diote futbolari eta euren bizitzaren erdigunea da: entrenatzeaz eta partidak jokatzeaz gain, futbol profesionala jarraitzen dute, mugikorretan partiden emaitzak jasotzen dituzte, aisialdi tarteetan baloiarekin aritzen dira eta mutilen arteko hizketaldien gai nagusia futbola da.

Hizkuntzari dagokionez, nerabe hauen kirol praktikan euskararen presentzia ez dela oso handia esan behar da. Bi izan dira soilik



euskararekin erabat identifikatu dituzten kirolak: esku-pilota eta arrauna. Gehien praktikatzen dituzten kiroletan futbolean, esku-baloian eta saski-baloian euskaraz eta gaztelaniaz aritzen direla diote. Hala ere, behatutakoaren arabera, kirol hauetan gaztelaniak askoz presentzia handiagoa du euskarak baino. Nabarmenena futbolaren kasua da: ia mutil guztientzat oso garrantzitsua den praktika da eta ikerketa honetan futbolarekin lotuta jaso diren hizketaldi, esamolde, antzezpen eta bestelako erreferentzia guztiak gaztelaniaz izan dira.

Kultura jardueren presentzia apalagoa da. Ez dira kultura jarduerekin lotutako praktika gehiegi jaso. Batzuk musika, antzerkia eta dantzarekin lotutako jardueretan parte hartzen badute ere, nerabe hauen kontakizunetan ez daude hain presente. Jakin badakigu, musika, dantza edo bestelako adierazpen artistikoekin lotutako ekintzak egiten dituztela, baina aipamenen artean gutxi agertu dira³. Itxuraz, kultura jarduera bakoitzak badu hizkuntza imaginario propioa. Trikitixa edo euskal dantza bezalako jarduerak erabat euskararekin lotzen diren bitartean, beste estiloetako adierazpen artistikoak gaztelaniarekin errazago identifikatzen dira.

Aisialdi taldeetan eta jarduera antolatuetan Kuadrillategi programa da ageri zaigun bakarra. Gune monitorizatua izan arren birziklatutako gunetara hurbiltzen den eredu dela ikusi ahal izan da. Egiten den herrietan arrakasta duen programa da eta parte hartzeko arrazoen inguruan nerabeek hauek aipatu dituzte: ondo

-
3. Gutxi agertzearen arrazoi posibleak: jarduera indibidualak izatea edo «nesken gauza» bezala identifikatutako jarduerak izatea. Azkenengo kasuan mutilek —kultur eremuan aritzen direnak— ez aitortzeko joera izango dute eta, neskei gehiago kostatuko zaie horretaz hitz egitea, besteak beste, kirolak bereganatzen duelako protagonismoa taldekako elkarriketetan.



pasa, lagunekin egon, jolastu eta hitz egiteko gunea. Hizkuntza helburu garbiarekin jorratzen diren aisialdiko jarduera hauek euskararen praktikarako aukerak handitzeaz gain talde identitatea euskaraz eraikitzeke bidea ematen dutela behatu da.

Gune birziklatuak

Kalea da aisialdiez formalari dagozkion jarduerak egiteko erabiltzen duten espazioa. Adin bereko gazteekin soilik konpartitzen dituzte espazio hauek baina lagun-talde edo kuadrilla ezberdinak toki berean elkartzeko joera dute. Gazteen deskribapenetan espazio hauen deserosotasuna eta, zenbaitetan, asperdura ageri dira. «Egon» aditza asko errepikatu dute eta egote horretan honelakoak aipatu dituzte: hitz egin, argazkiak atera, mugikorrarekin aritu, gozokiak jan. Hala ere, mugimenduzko jarduera batzuk ere ageri dira: baloi jolasak, musika entzunez dantza... Bestalde, telefono mugikorrek erabateko presentzia dute gazte hauen aisialdian. Behatutako saioetan oso presente egon dira eta adin honetako talde dinamikan parte hartzeko beharrezkotzat jotzen dituzte.

Berezko guneak

Aztertutako nerabeek ez dute berezko gunerik erabiltzen eta lokalak edukitzeko gogoia adierazten dute, nahiz eta zaila ikusten duten.



GU, GURE HIZKUNTZAK



Aurreko atalean deskribatutako praktika horietatik ikerketan parte hartu duten gazteen hizkuntza-praktika nagusienak deskribatzera iritsi gara? Behatutako hizkuntza-praktika orokorra esaldi batekin laburtu daiteke: euskara eta gaztelania continuum batean daude. Hizkuntza batetik bestera oso erraz pasatzen dira, mugimenduan dagoen itsasoa dirudi: euskarazko olatua dator eta euskaraz egiten dute, gaztelaniazko olatua dator eta gaztelaniaz egiten dute, hitz jariora apurto gabe, ia konturatu gabe. Hizkuntza batetik bestera egiteko jauzia barneratuta dute.

Gazte hauei euskara ez zaie arrotza egiten, behaketa guztietan euskara entzun da. Baina gaztelania oso presente dago eta askotan nagusitzen da. Bestalde, euskarazko gaitasun arazorik ez dute, baina badira euskaraz arin eta erraz? hitz egiteko zailtasunak dituzten batzuk.

Ikerketan hiru alor nabarmendu dira:

HIZKUNTZA MUDANTZA

Hiztunen hizkuntza-praktika dinamiketan gertatzen diren aldaketak eta irauten duten praktikak.

GAZTE-HIZKERA

Gazteek aisialdian lagunekin daudenean bat-bateko egoeran erabiltzen duren hizkera. (Ahozkoa eta idatzizkoa)

HIZKUNTZA-ALTERNANTZIA

Hiztun talde batek bi hizkuntza ezagutzen edo erabiltzen dituztenean bi hizkuntzak batera erabiltzeko joera.



Jakitun gara hiru elementu hauek dimentsio ezberdina dutela eta elkarlotuta daudela, baina gazte hauen hizkuntza bizipenak deskribatzeko kontzeptu giltzarriak dira.

HIZKUNTZA MUDANTZA

- *Emplem el concepte de «muda lingüística» per referir-nos tant als canvis com a les permanències lingüístiques*
- *que es troben en qualsevol contemplació dinàmica dels usos lingüístics en dos àmbits o camps relacionals o en dos moments diferents. El concepte es pot projectar també a la comparació entre diferents posicionaments lingüístics del individu, ja siguin relatius a usos, ja ho siguin a adscripcions simbòliques d'identificació lingüística.*
- *(Pujolar, Gonzalez, Font & Martínez, 2010).*

Hizkuntza-mudantza kontzeptuak hizkuntza-praktika dinamiketan gertatzen diren aldaketei eta irauten duten praktikei egiten dio erreferentzia. Joan Pujolar-ek Katalunian egindako ikerketetan (Pujolar, 2010) bost aldaketa une bereizi ditu: 1. Eskolan, 2. Institutuan, 3. Unibertsitatean, 4. Lan munduan eta 5. Arlo pribatuan (bikotea, lagunak, familia). Hemen garatutako ikerketa honetan bigarren unean gertatzen den hizkuntza mudantzei begiratu zaie eta argi adierazi daiteke behatutako taldeetan, beste hainbat ikerketetan ondorioztatutako errealitatea ere ageri dela: euskarari uko egiteko joera. Garbi esan daiteke, beraz, hizkuntza-mudantza ematen dela.



GAZTE HIZKERA AHOZKOA ETA IDATZIKOA

- Gazteek erregistro asko dauzkate: helduek bezala,
- maila idatzia eta ahozkoa argi desberdintzen dituzte;
- gainera, maila idatzian bertan badakite aldaera ezberdina
- erabiltzen erosketa-zerrenda, SMS mezu bat eta eskolako
- txosten bat idazteko. [...] Ahoz ere ez dute zalantzarik
- jende aurreko ekitaldi baten aurkezpena egin behar badute
- hizkera osatuago erabil behar dutela [...]. Lagunartean
- aisiladian beste aldaera bat da egokiagoa. (Amorrortu, 2005)

Behatutako egoera informaletan elkarrizketa luze gutxi entzun dira. Ahozko komunikazio egoera arruntenak esaldi eta, batez ere, esamolde motzez osatutakoak izan dira. Hala ere, baldintza egokiak gertatuz gero elkarrizketa luze samarretan, talde txikietan, gustura aritzen direla behatu da.

Bestalde, nabarmena eta etengabekoa da idatzizko komunikazioaren erabilera telefono mugikorraren bidezko harremanetan. Gazteek ahozkotasunetik oso gertu dagoen erregistroa dela uste dute eta antzeko kodeak erabiltzen dituzte.

Kike Amonarrizen arabera gazte euskara kolokialaren ezaugarri nagusia euskara nahasia izatea da eta jokaera honen helburu nagusia, komunikazioaren adierazkortasunean irabaztea dela dio (Amonarriz, 2005). Oraingo ikerketa honetan nahasketa oso garbi ageri da, eta esan daiteke parte hartu duten gazteen hizkeraren ezaugarri nabarmenena hizkuntza-alternantzia dela.



HIZKUNTZA-ALTERNANTZIA

- Bi motatako kode-aldaketa:
 - *Kode-nahasketa* esaldi berean hizkuntza bat baino gehiago erabiliz hitz egitea da; adibidez, esaldi bat euskaraz hasi eta erdaraz amaitzea.
 - *Kode-alternantzia* esaldi batetik bestera hizkuntza aldatzea da; adibidez, elkarrizketa batean euskaraz agurtzea eta ondoren erdaraz aritzea. (Coyos, 2010).

Hizkuntza-alternantzia hitzun talde batek bi hizkuntza ezagutzen edo erabiltzen dituenean bi hizkuntzak batera erabiltzeko joera da. Esan bezala, gazte hauen hizketaldietan gaztelania eta euskara nahasteko joera oso nabarmena da eta, gehienetan, gaztelaniazko esamoldeek euskarazko hizketaldian interferentzia eragiten dute. Esan daiteke lagunarteko gazte hizkera ia beti modu elebidunean egiten dutela, egoera «normala» elebiduna bihurtuz:

- **Ikertzailea:** Kanean zaudetenean zer hizkuntza entzuten da? Nola egiten duzue?
- **Neska 1:** Normala... Ez da euskaraz ez da erderaz.
- **Ikertzailea:** Zer da normala?
- **Neska 1:** Normala...
- **Neska 2:** ¿El qué? Ez naiz enteratu.
- **Neska 1:** ...hori da normala: «el-que-ez-naiz-enteratu».



Hizkuntzei buruzko gazteen diskurtsoak ere jaso dira eta, hemen ere, gaztelania eta euskara gazte hauen egunerokotasunean continuum batean ageri direla ikusi ahal izan da. Euskarazko olatuak eta gaztelaniazko olatuak etengabe datoz. Gazteen iritzien arabera, euskarazko olatuak bide hauetatik datoz:

OHITURA: «lagunekin egoten naizelako, horrela ateratzen zaigulako, txikitatik ikastolan euskaraz hitz egin dugulako...».

IDENTITATEA: «gure hizkuntza delako».

ARDURA: «Bestela galduko da. Geroz ta jende gutxio hitz egiten, gero ta gutxio, gero ta gutxio... azkenen bukatuko dira bost pertson ez dakit zenbat jende artian...».

DERRIGORTASUNA: «toki horietan euskaraz egin behar delako: institutuan, Gaztelekuan».

Gaztelaniazko olatuetan, ordea, kanpo faktoreak dira ia denak. Behin bakarrik aipatu dute gaztelaniaz hitz egiten dutela «nahi dugulako» edo testuinguru horretan «gaztelaniaz hobeto konpontzen garelako»:

BESTE ADINKIDEAK (hau da gehien errepikatu dena): «ez dakitelako, erdara gehiago egiten dutelako, gogorik ez dutelako...».

HELDUAK: «entrenatzaileek, etxekoek, dendariak erderaz egiten duelako».

HAURRAK (gutxi aipatu da): «guk baino erdaraz gehio egiten dute, gu txikitan euskeraz hitz egiten genuen, nik entzuten ditut txikik ta denak erderaz».

Bukatzeko, gazte hauen diskurtsoetan agertu diren bi gai aipatu behar dira. Batetik, euskaraz hitz egiteko joera handiago duten gazteen diskurtsoen arabera, adin honetako nerabeen artean euskarak prestigio mugatua du. Gaztelaniaz egitea «guaiago»



izateaz gain, zenbaitetan euskaraz egiteagatik barregarri geratu direla aipatzen dute. Bestetik, badirudi oro har nahiko ados daudela neskak gehiago egiten dutela euskaraz mutilak baino.



ONDORIOAK

Orain arte dokumentu honetan aurkeztu direnak «Gazteak ikerlari, gazteekin egindako ikerketa partehartzailea» izeneko ikerketan 12-14 urteko gazteekin landu eta jasotako informazioaren emaitza dira. Hor daude lan honen gako garrantzitsuenak. Gazteengandik jasotakoak begirada berria, freskoa eta interesgarria eskaintzen baitigu.

Amaitzeko, hala ere, ikerketa lan honetatik, beste hainbatetatik jasotakoa eta Euskararen Aholku Batzordeko Gazteriaren Batzorde-atal Bereziaren kideen ekarpenak oinarri hartuta, aurrera begira lagungarriak izan daitezkeen hausnarketa batzuk plazaratu nahi dira ondorio gisa.

Hasteko, burututako ikerketa eremua eta bertan aztertutako lagina nahiko mugatua/zehatza bada ere, emaitzak eta ondorioak nahiko orokortuak egon daitezkeela uste dugu.⁴ Batetik, pentsatu daiteke adin horretako gazte askoren irudia islatu dela eta, bestetik, ulertu daiteke egungo gizartearen oinarrizko argazki bat jaso dela. Izan ere, gazteei loturiko arazoak edo kezka gizarte oso baten sintomak edo metaforak dira eta, pentsatzekoa da, nerabeengandik jasotakoak hizkuntzaren inguruan egungo gizarte errealitatea zein den islatzen duela. Baina, zer islatzen du ispilu horrek?

4. Honekin lotuta esan behar da, ikerketak izaera mikroa izan badu ere, orokortasuna bilatu duela uneoro. Alegia, aztertutako gazteen izaeran eta berezitasunetan erreparatu baino, gazte horiek beste gaztekin partekatzen dutena hartu da bereziki kontuan.



1 Euskara zaharren hizkuntza izatetik haur eta gazteen hizkuntza izatera pasa da

Ikerketa soziolinguistikoek, behintzat, hala diote. Azken hamarkadetan eman den hizkuntza aldaketa nabarmena dela argi dago. Galdetzekoa litzateke prozesu honetan helduak zenbat «mugitu» diren, baina adin batekin lotu beharko bagenu euskara, gaur gaurkoz, haurtzaroarekin eta gaztaroarekin lotuko genuke.

2 Hiztun berrien belaunaldi bat sortu dugu, euskara ikasi dute eta euskararen (hizkuntzaren) kultura sozializatu dira

Baina ez dakigu euskarak eta euskararen kulturak gazteei zer eskaintzen dien, edo nola artikulatzen/txertatzen duten kultura hori beraien gazte izaeretan. Egungo gazte-kultura euskarak duen pisua zein den jakitea beharrezkoa da. Norberaren eta talde identitatearen erakitze prozesuari garrantzia eman behar zaio. Hizkuntza non, noiz, zenbat ikusteaz gain, hizkuntza bat edo beste erabiltzen dutenean gazteen helburuak zeintzuk diren aztertzea garrantzitsua da; nerabeen artean zerbait komunikatzea baino norberaren komunikatzailea izateak garrantzi handiagoa baitu.

3 Euskarak gazteei eskaintzen dienari begiratu behar diogu

Galdera aldatu behar da: Zergatik ez dute gazteek euskaraz hitz egiten? galdera utzi eta Zer eskaintzen die euskarak gure gazteei? galdetu behar dugu. Zer eskaintzen die gazteak eta euskaldunak (edo gazte euskaldunak) izateko (edo sentitu ahal izateko)? Langintza horretan elementu hauei begiratu beharko genieke:



- ▶ Praktika-komunitateei: harremanak (norekin?), jarduerak (zertan?) eta espazioak (non?).
- ▶ Kultur-kontsumoei: musika, ikus-entzunezkoak, moda, teknologiak...
- ▶ Genero sistemari: nerabeek identitatea agertzeko prozesuan generoak eragin oso nabarmena du.
- ▶ Euskararen kulturari: sozializazio prozesuan haur eta gazteei eskaintzen zaien euskararen kulturaren ezaugarriei eta formei.

4 Euskararen kulturari erreparatzeko⁵ beharra eta euskararen kultura erreparatzeko⁶ beharra

Euskararen kulturari erreparatzea garrantzizkoa da, egun euskara gure bizitzaren parte baita eta nerabeen egunerokotasunean presentzia nabarmena duelako. Euskararen debeku garaia eta euskara biziberritzeko garaia biak bide arautzaile-normatiboak izan dira nagusiki. Biak oso ezberdinak, noski, baina oro har presio/tentsio beharrezkoa sortu dute hizkuntzaren inguruan. Bestelako diskurtsoak eta praktikak periferikoagoak izan dira (umorea, ludikotasuna, txantxa...). Euskararen gizarte hobekuntza arauen bidez etorri da eta haur eta gazteen kasuan araua eskolak bideratu du nagusiki. Eskolak hizkuntzaren disziplina hori bete du, nagusiki (eta betetzen jarraitu behar du) erdalduna den gizarte batean; eskolatik kanpo, aldiz, euskararen aldeko intentsitatea ez da nabarmentzen. Egoera kontraesankor horri buelta eman beharko genioke, intentsitate hori eskolatik kanpo ere zabalduz, eta, beharrezkoa balitz, birformulatuz.

5. Erreparatu = begiratu, behatu, ohartu

6. Erreparatu = konpondu



5 Gazteen euskararen erabileran bi helduleku nagusi daude: ohitura eta diskurtsoak

Gazteek euskaraz egiteko arrazoiendiskurtsoa, derrigortasunarekin batera, beste hiru ardatzen inguruan eraikitzen dute: ohitura, nortasuna eta ardura. Esan daiteke, beraz, **gazteen euskararen erabileran bi helduleku nagusi daudela:**

OHITURA: etxeak, eskolak, aisialdiak (jarduera formalak: musika eskola...) eta, neurri apalagoan, ikaskideen arteko harremanek ahalbideratu dute orain arte (nerabetasunera iritsi arte) euskaraz hitz egiteko ohitura. Ohitura hau haurren munduari loturiko praktika ezberdinekin egon da lotuta: zaintza, hezkuntza, pailazoak...

DISKURTSOAK: nortasuna —«euskara gurea»—, ardura —«desagertuko da»—, derrigortasuna —«euskaraz egin!»— eta, neurri batean, gatazkari lotutako diskurtsoak izan dira gehienbat garatu eta zabaldu direnak.

Ohitura(k) eta diskurtsoen artean hutsune zabal bat sortzen da. Diskurtsoak neurri batean barneratu dituzte, ikasi dituzte, baina nahikoa huts geratu zaizkie. Ohitura eta inertzia batzuk oraindik bizirik diraute, baina nerabeen munduan ohitura berriak hartzen eta garatzen ari dira. Eta hor euskararen kultura ez dago hain garatuta, batetik, hizkuntz erabileraren kudeaketari loturiko kultura ez delako garatu; bestetik, euren praktika-komunitateetan euskarak presentzia gutxiago duelako.



6 Gazteen praktika-komunitateetan gaztelaniak presentzia handia du

Lagun taldean, eremu birtualean, kirolean, kalean, auzogunean... Gune soziolinguistikoaren arabera egoera zertxobait aldatzen da, baina nahiko orokortutako egoera da. Esan daiteke, beraz, **gazte elebidunak direla, nagusiki, gaztelaniaz bizi den gizarte batean**. Belaunaldi «zubia» dira bi errealitate soziolinguistikoaren artean jaio, bizi eta hazi direlako. Hizkuntza-nahasketa da euren artean nagusitzen dena, aniztasuna delako nagusi abiapuntuan ere (familian, eskolan, auzoan, herrian, hirian...). Egoera hau kudeatzeko tresnak behar dira, (euskararen) kultura garatu eta eguneratu behar da eta hizkuntza sozializazioan sakondu behar da. Nahasketa(k), aldaketak, mudantzak, kontraesanak, dinamismoa..., gizartearekin batera, gazteak ere hizkuntz errealitatea finkatu ezinean dabilta.

7 Gazteen hizkuntza-praktiken bi ezaugarri nagusiak: nahasketa eta mudantza

Batetik, 12-14 urteko nerabeen artean hizkuntza mudantza ematen da, euskara gutxiago erabiltzen dute. Prozesua aurretik abiatzen bada ere adin honetarako finkatutako egitatea da. Bestetik, gazteen arteko egoera komunikatiboetan nahasketa ageri da. Nahasketa horretan, batez ere, gaztelania eta euskara nahasten dute⁷. Euskararen eta gaztelaniaren arteko alternantzia, beraz, ohiko praktika da; gazte-hizkera horrelakoa dela esan

7. Hizkera informal horren beste ezaugarriak honakoak dira: ahozko eta idatzizko kodearen erabilera etengabea (biak elkarrekin), esaldi labur eta amaitu gabeen erabilera, gorputzaren garrantzi komunikatiboa, etenak, isiluneak...



daiteke eta gazteentzat «normal» hitz egitea euskara eta gaztelania nahasten hitz egitea da. Nerabeen artean ohikoagoa da eta onartuago dago alternantzia erabiltzea euskara hutsean aritzea baino: informaltasun handiagoa ematen die. Horregatik, lagunarteko hizkeran, ia beti, modu elebidunean hitz egiten da, eta interferentziak gehienetan gaztelaniatik euskarara gertatzen dira.

Amaitzeko esan behar da gazte hizkeraz izendatzen dugun hori hausnarketarako kontzeptu gisa ageri zaigula. Batetik, hobeto ezagutu beharko genituzke kontzeptu horren baitan, gaur egun, biltzen diren elementuak eta, bestetik, kontzeptuak testuinguru soziolinguistiko eta jarduera/egoera ezberdinetan hartzen dituen ezaugarriak hobetu aztertu beharko lirateke.



AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Dokumentu honen sarreran zehazten zen bezala, dokumentu honetan bildu ditugun ikerketaren emaitzak, eztabaidarako eta hausnarketarako abiapuntu gisa planteatu dira euskararen normalizazio sozialaren bidean. Norabide horretan, Euskararen Aholku Batzordeko Gazteriaren Batzorde-atal Bereziak aurrera begirako proposamen orokor batzuk zerrendatu ditu:

1 Gazteen eta euskararen arteko harremanetan sakontzen jarraitzea

Ikerketa arlo eta ikergai ezberdinak nabarmendu dira, besteak beste:

- ▶ Ikerketa zabalagoak: lurralde eta testuinguru soziolinguistikoari dagokionez, baita ikerketa izaerari dagokionez ere.
- ▶ Gazteek duten euskarazko gaitasunean sakondu: ahozko-tasuna, jarriotasuna...
- ▶ Gazteen hizkerari (hizkereri) buruzko ikerketak, testuingurua, egoera, eginkizuna eta solaskideak kontutan hartuko dituztenak.
- ▶ Hizkuntza-alternantzia aztertzea interesgarritzat jotzen da: nork aldatzen duen hizkuntza, zein momentutan, komunikazioaren zertarakoan...
- ▶ Gazteen jarrerak, jokabideak eta portaerak (orokorrak eta hizkuntzarekikoak) hobeto ezagutu eta ulertu.



- ▶ Gazte unibertsitariei buruzko ikerketak, hirugarren hizkuntza-mudantza garaia aztertzeko (Magisteritza eskolako ikasleak bereziki aipatu dira)
- ▶ Aisialdiko testuinguruetan hezitzaileen/entrenatzaileen normalizatazailerolaren gaineko ikerketa.

Garrantzitsutzat jotzen da ikerketa hauetan gazteen «ahotsak entzutea». Hau da, beraiekin solasaldiak edukitzea eta euren hizketaldien lekuko izatea. Gazteen praktikak eta bizipenak ezagutuz, garatu beharreko hizkuntza politika planifikatzeko aukera izango dugu.

2 Kirol, kultura eta aisialdirako hizkuntza-plangintza sendoak ezartzea

Administrazioak ez du aukerarik esparru batzuetan zuzenean esku hartzeko baina bai, beste batzuetan, kulturean, aisialdian edo kirolean esate baterako. Ikusi dugunez eremu hauek oso garrantzitsuak dira nerabe eta gazteen bizitzan (bai objektiboki —bertan ematen dituzten ordu kopuruagatik—, bai subjektiboki —euren izaeran duten pisuagatik—). Ahaleginak egin beharko lirateke euskararen presentzia nabariagoa izateko eta erabilpena suspertzeko. Esparru honetan hizkuntza helburu eta plangintza sendoak dituzten programak indartu behar dira.

3 Eskolaren lana indartzea

Eskolaren lana zaindu behar da, gazte gehienek euskara bertan (ere) jasotzen dutelako. Hizkuntza gaitasuna sendotzeari begira lan egiten jarraitu behar da, gaitasunik gabe erabilera nekez ematen delako. Ahozkotasanaren lanketa indartu beharko litzateke.



4 Aurreko bi atalen garapenean, bereziki harrera jartzea gazteekin harremanetan ari diren profesional eta eragileengan (irakasleak, kultura sustatzaileak, aisialdi begiraleak, kirol monitoreak...), horretarako ikerketa sustatuz, programa bereziak sortuz, prestakuntza eskainiz, sentsibilizazioa sustatuz.

5 Gazteen euskarazko sorkuntza propioa aktibatzeo eta egiteko baliabideak (egoerak, ekimenak, diskurtsoak...) zabaldu, sendotu, sortu eta jakinaraztea

Gazteek euskara beraiena egiteko aukerak ematea, jaso duten euskara musika, Internet, ikus-entzunezko, antzezpen eta abarretan baliatzeko gogoa piztuz.

6 Euskararen prestigioa indartzeko ahaleginak egin behar dira

Euskararen aldeko tentsioa mantendu behar da, jada martxan dauden ekimenak indartuz eta berriak sortuz. Hizkuntzaren egoera sozialari buruzko informazioa zabaltzea komeniko litzateke. Era berean, euskararen kultura indartzeko baliabideak sustatzea komeniko litzateke.



ERREFERENTZIAK

- AMONARRIZ, Kike (2005). «Gazte hizkeraren egungo egoera eta garrantzia» in *Gazte Hizkera*: 11-24. Donostia: Urtxintxa.
- AMORRORTU, Estibalitz (2005). «Gazte hizkeraren bila? Sozio-linguistikatik hausnarketa pare bat» in *Gazte Hizkera*: 35-43. Donostia: Urtxintxa.
- COYOS, Jean-Baptiste (2010). «Hizkuntza-ukipena» in *Soziolinguistika Eskuliburua*. 135-185 orrialdeak. Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza.
- FEIXA, Carles (2006). «Generación XX. Teorías sobre la juventud en la era contemporánea» in *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, 4(2): 21-45.
- GARCIA, Ohiana (2016). «Hizkuntza-transmisioaren kate-begi isilak» in Ehuyar.eus. On-line <<http://komunitatea.elhuyar.eus/eraldaketa-elhuyar-da/2016/02/22/hizkuntza-transmisioaren-kate-begi-isilak>>
- HERNÁNDEZ, Jone Miren (2005). «Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak». Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- HERNÁNDEZ, Jone Miren (2011). «Baina gu ere gazteak izan ginen. Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur» in *Euskera*, 55(2): 579-607. Bilbo: Euskaltzaindia.
- KASARES, Paula (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- LANTTO, Hanna (2015). *Code-switching in greater Bilbao. A bilingual variety of colloquial basque*. Helsinki: University of Helsinki.
- PUJOLAR, Joan; GONZALEZ, Isaac; FONT, Anna; MARTÍNEZ, Roger (2010). *Llengua i joves. Usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana*. Generalitat de Catalunya.
- RODRIGUEZ, Txerra (2015). *Sutondoko kontuak*.

